

## **Hauteskundeak eta PSOE**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-05-26: 2.

Hauteskundeak ez dira oraingoak. Zeruaren izenean egin izan dira Munduan ongi finkatuta zeudenen eraginez; Franko berak antolatzen zituen, eta ea! Demokrazietan ere egiten dira "legezko" tranpak: telebistan arte handiz, esate baterako.

Badira oso zarpailak direnak ere: PSE-PSOE-k egiten dituenak kasu:

Denok dakigu hauteskunde bakoitzak bere jatorriko zementarriak dituela. Lurraldea, batez ere. Guri dagokigunez, bi bakarrik aipatzeko, badira *Estatukoak*, eta *Lurralde Autonomokoak*, beraz, ez da legezko, Autonomia honi dagozkion Batzar Nagusietarako batzarkideak eta bere herrietarako zinegotziak aukeratzeko bereziki egiten diren hauteskundeetan, Estatuko *apisonadora* guztiak gainera botatzera: Estatuko agintari nagusiak, Estatuko telebista programak, eta Autonomien aurkakoak diren argudio demagogikoak. Hauetatik bakar bat aipatzeko: Estatuko bere lurraldetatik gure Herrira bizitzera etorri direnei, gure legezko eskubide ditugun *hizkuntza, kultura eta herritartasunaren* bidez susmo txarren mende jartzen, eta Estatuko bere Konstituzioan bertan dauden eskubide hauek errezelotan jarriaz, gure aurka asaldatzen ahalegintzen dira!

Honez gain PSOE handiko armak, PSEko txikiekin bat egin eta etorkinei geuk gogo onez aitortzen diegun errespetua, geure haienganako diskriminazioa bezala salatzen digute! Gure Herrian integrazteko euskal ardura guztiak zapuzteko errua leporatzen! horiek, zera nahi dute: Euskal Herria erdalduna eta espainola izatea.

Orduan ez litzateke Euskal Herria izango!

Inoxenteak!, azken finean, hau Franko berak ere onartuko zukeen!